

ITSAS-BAZTERREAN.



NERE BIOTZ-BIOTZEKO ADISKIDE PEDRO I. AZPURUA-RI

Euskal-erriyari begiratzean
 Penaz beterikan,
 Aren naigabeaz nere biyotza
 Zauriz josirikan,

Itsas-bazterrera nator, ugari
 Negar egitera;
 Negar oriyekin, sentitzen dedan
 Miña gozatzer.

Zorionekoa, lurrean negar
 Egiten duena;
 bada negarra da gizonarentzat
 Miñen gozamina.

¡Nola gozatzen dan estutasuna
 Negar egitean!
 ¡Nola sendatutzen, gure biyotza
 Malko bakoitzean!

Malko tantoetan, doa gugandik
 Degun naigabea,
 Bizitza gurea samintzen duen
 miñ zaurigillea.

Malkóak, biyotza garbitzen dute,
 Churi lagarikan,
 Garbitutzen diran eran zelaiyak,
 Intzez bustirikan.

Eta ¡zén garbirik nere biyotza
 Laga bear duten!
 Zergatik garratzak, guztiz garratzak
 Ditudan isurtzen.

Ondokaiya zera, itsas-ekaiztsu

Kantauriyakoa,
 Baña nere pena, nere miña da
 Ondokaiyagoa.

Da bukagabeko leize zulo bat
 Beziñ ondokaiya,
 Negu beltz tristean zu zeran beziñ
 Ikaragarriya.

Da.... baña ¿zér nai det? nai det azaldu
 Nere miñ aundiya?
 ¿Nola, baldin bear badet mingañ bat
 Chit goi ta zoliya?¹

Nere lur maitea... penaturikan....
 Dolkaiz² estaliya....
 Len zuen urrezko mantua, milla
 Zatitan autsiya....

Bere seme danak, erbestetuen
 Miñak nozitutzen,³
 Kabi gabe dauden choriyen eran
 Triste zizpurutzen.....

Dontzella guztiyak negarrez daude;
 Matralla tristean
 Azalkeratzen da, zér miña duten
 Beren biyotzean.

Aiton buruzuri maitagarriyak
 Oyuskatzen dute;
 Besoetan, gorde nairik, aurchoak
 Artutzen dituzte....

Ibaiyak, errekak.... arreturikan....
 Lañoz ingurarik....
 Beren ertzetan ¡ai! aditu gabe
 Kantu pozezkorik....

Mendiyetan dauden iturrichoak
 Danak agorturik....
 Berak bustirikan, azitzen ziran
 Landareak, illik....

(1) Expresivo.—(2) De luto.—(3) Padeciendo.

Saroiyak, basoak, chara luzéak
 Chori bat gaberik....
 Isiltasun triste negargarriya,
 Beretan nausirik....

Arbola guztiyak arrenkurarik,
 Zariken antzera;
 Beren adarrak ¡ai!, desalaiturik,
 Jechirik lurrera....

Dana beltzasunez.... illuntasunez...
 Tristuraz beterik....
 Aizetan entzuten ez dala, negar
 Mintsuak besterik....

¡Eta zér tristura! ¡zér illuntasun
 Negargarrizkoa!
 Noizik bein ikusten dan argiya da
 Chimista suzkoa.

Beraren ondoren, illuntasuna
 Geitutzen duena;
 Bildurrez, ikaraz mendi guztiyak
 Uzten dituen.

Turmoiyeñ dunbotsaz,¹ isiltasuna
 Genasitzen bada,
 Mendi-zokonetan oyarzun² triste
 Bat aditutzen da.

¡Zér ekaitz gogorra! Lurreratzen du
 Topatzen duena:
 Naiz landarechorik ezerezena,
 Naiz indartsuena.

Naiz anziñatikan itsatsirikan
 Sustraiyak dauzkana;
 Naiz, len ekaitz danak, beren joairan,
 Goi utzi dutena...

¡Isasoa!... ¡zenbat bularretatik
 Miñak aterarik,

(1) Estruendo.—(2) Eco.

Joaten diran zugar malko garratzak
Urakin nasturik!

¡Zenbat, zenbat auben aditutzen dan
Zure bazterretan!

¡Zenbat odeitzar, beltz ikusten diran
Euskal-mendiyetan!

¡Zenbat, zenbat aldiz, aize-bunbadak,
Ostoak kendurik
Aritz maiteari, dituen zugar
Eraman igarririk!

¡Gau izugarriya!... ¡Nere Jainkoa!
¿Noiz bukatuko da?
¿Noiz egun-sentiya larrosaturik,
¡Noiz! agertuko da?...

¿Noiz odei beltz oek, aren argiyak
Urratuko ditu?...
¿Noiz mendi goituak, ibai zokonak,
Dizdiztuko ditu?...

Itsaso zabal au, arroturikan
Naiz egon orruaz,
Bere baga pitsdun aserreakin
Aitzak zeatuaz;

Laster umillzen da, sentitutzean
Aizecho biguna,
Pake donearen¹ mandataritzat
Biraltzen dezuna.

Bukatzen da, zelai mardulak soiltzen
Dituen ekaitza;
Naiz zurrunbilloan dabillan aize
Gogor ezikaitza...

Naiz galmenarekin dijoan ujol
Zemuitezgarriya,²
Naiz biyotz danetan ikara sartzen
Duen izurriya....

(1) Santo.—(2) Irresistible.

¿Eta gure lurra dolkaitzen duen
 Miña da betiko?
 Bere bekatúak, añ miñ larriyak
 Ez ditu kitako?

Begiratu ¡Jauna! zenbat zizpuru,
 Zenbat negar doan
 Urakin nasturik, itsas-aserre
 Kantauriyakoan.

Begiratu zazu nola Zugana
 Besoak jasorik,
 Gauden, barkamena biyotz-biyotzez
 Zuri gurteskarik¹

Begiratu, zenbat aur ogengabe²
 Diran ilduratzen;
 Amaren mindura begiratzean,
 Diran izututzen.

Izan zazu, bada, gure Jainkoa,
 Gutzaz urrikiya;
 Bada ¡Jauna! Zure biguntasuna
 Da neurtezagarriya.

Ez dezu nai Zuk ¡ez! doñeskañitzat³
 Odol-išurtzerik;
 Zuk nai dezuna da, biyotz umill bat
 Benaz damaturik.

Damaturik gaude; biur zaiguzu
 Bigun, arpegíya;
 Berriz jaiki dedin, koroaturik,
 Euskaldun-erriya.

Doneskañi garbiz, aldare danak
 Estali ditezen;
 Jende danak zure doaindigoak⁴
 Kantatu ditzaten.

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.



(1) Suplicando.—(2) Inocente.—(3) Ofrenda.—(4) Alabanzas.